

## 1. PERPAUS BAKUNAK

- 1) **Galdera perpausak:** *Nor da mutil hori?; Zer egingo duzu bihar?*
- 2) **Adierazpen perpausak**
  - a. **Baiezkoak:** *Edorta bihar mendira joango da.*
  - b. **Ezezkoak:** *Gu bihar ez gara kalera irtengo.*
- 3) **Aginte perpausak:** *Zatoz hona!; Kontuz ibili!; Ekar iezadazu liburu hori!*
- 4) **Harridurazkoak:** *Hura bai neska!*

## 2. PERPAUS ELKARTUAK

### 2.1. KOORDINATUAK

#### 2.1.1. ALBORAKUNTZA HUTSEZKOA

**Alborakuntza hutsa:** *Ez naiz lanera joan, ondo nago.*

**Emendiozkoa (distributiboa; errepikapenezkoa):** *Bai zu bai ni mendira joango gara bihar.*

**Aurkariak:** *Batzuk ados baude, besteak ez daude ados.*

#### 2.1.2. JUNTAGAILUZKOA

**Emendiozkoak:** *Ni etxera noa eta Xabier kalera doa.*

**Hautakariak:** *Gaur (etorriko da) edo bihar etorriko da.*

**Aurkariak:** *Esatekotan egon zen, baina isildu egin zen.*

**Ilatiboak:** *Bihar eguraldi txarra egingo du, beraz ez etorri.*

### 2.2. MENDERAKUNTZA

#### 2.2.1. PERPAUS OSAGARRIAK: ZER?

MOTAK	MENPERAGAILUAK	ADIBIDEAK
Baiezkoak	-(e)LA; -NA	<i>Ondo dagoela esan du.</i>
Ezezkoak	-NIK; -LA; -NA	<i>Ez dut uste egia denik.</i>
Agintezkoak	-TZEKO; -LA	<i>Etortzeko esan du.</i> <i>Etor zaitzela esan du.</i>
Beste batzuk	-LAKO SUSMOA; -LAKOAN EGON ; BAIETZ, EZETZ	

2.2.2. ZEHAR GALDERAK: ZER?

MENPERAGAILUAK	ADIBIDEAK
-N	<i>Jonek ama hor dagoen galdetu du.</i>
EA... - N	<i>Ea zuri hobeto ateratzen zaizun.</i>
-N ala EZ; - NETZ	<i>Oraindik ez dakigu egingo dugun ala ez.</i> <i>Zuk ikusi egin nahi duzunetz (duzun ala ez).</i>
Ez dakit ZER EGIN	<i>Ez dakit NOR den; Ez dakit NOIZ gertatu den...</i>

2.2.3. HELBURUZKOAK: ZERTARAKO?; ZERTARA?

MENPERAGAILUAK	ADIBIDEAK
-TZERA (Aditz nagusia mugimenduzkoa aditzak direnen: joan, etorri, etab.)	<i>Buelta bat matera noa.</i>
-TZEKO (Beste aditz guztiekin)	<i>Autoa garbitzeko erosi dut xaboia.</i>
-TZEKO ASMOTAN; -TZEKOTAN	<i>Festara joateko asmotan nago/nabil.</i> <i>Festara joatekotan nago/nabil.</i>
-TZEAGATIK	<i>Zurekin egoteagatik etorri naiz.</i>
-TZEAREN	<i>Zurekin egotearren etorri naiz.</i>

2.2.4. KAUSAZKOAK: ZERGATIK?

MENPERAGAILUAK	ADIBIDEAK
-(e)LAKO	<i>Berandu delako joan da.</i>
ETA	<i>Etxean geratu da, buruko mina zeukan eta.</i>
BAIT-	<i>Ezin dut erosi, ez baitaukat dirurik.</i>
-NEZ (GERO)	<i>Oso berandu zenez (gero), alde egin genuen.</i>
-(e)LA ETA	<i>Oso kezkatuta gaude seme-alabak direla eta.</i>
-(e)LA BIDE = -(e)LA KASU = -(e)LA MEDIO	<i>Krisialdia dela bide, oso zaila da lana aurkitzea.</i>
-T(Z)EAGATIK; -T(Z)EARREN	<i>Kontuz ez ibiltzeagatik apurtu zaizu.</i> <i>Hori onegia izatearren gertatzen zaizu.</i>
ZEREN; ZE; EZEN	<i>Ezin esan izan diot, zeren (eta) ni heldu orduko alde egin du.</i>

### 2.2.5. BALDINTZA

MENPERAGAILUAK	ADIBIDEAK
BA- / BALDIN BA-	<i>Jausten bazara, min hartuko duzu.</i> <i>Jausten baldin bazara, min hartuko duzu.</i>
-Z GERO	<i>Jausiz gero, min hartuko duzu.</i>
EZIK / EZEAN = EZ BA-...	<i>Ulertu ezik, galdetu.</i> <i>Ulertu ezean, galdetu.</i> <i>=Ulertzen ez bada, galdetu.</i>
-TZEKOTAN	<i>Egitekotan, ondo egin. (Bestela ez egin)</i> <i>Etortzekotan, etorri autobuses. (Bestela, ez etorri)</i>

### 2.2.6. ERLATIBOA: ZEIN?

MENPERAGAILUAK	ADIBIDEAK
-N	<i>Goizean ikusi dugun mutila Gasteizkoa da.</i>
-TAKO/-RIKO	<i>Goizean ikusitako/ikusiriko mutila Gasteizkoa da.</i>
ZEIN ___ BAIT- ___; ZEINA _____ -N	<i>Mutil hori zeini duela gutxi loteria tokatu</i> <i><b>bait</b>zaio....;</i> <i>Mutil hori zein<b>ari</b> duela gutxi loteria tokatu</i> <i>zaion....;</i>

### 2.2.7. KONTZESIBOAK

MENPERAGAILUAK	ADIBIDEAK
ARREN	<i>Ordaindu arren, ez dut egingo.</i> <i>Ordaindu didaten arren, ez dut egingo.</i>
NAHIZ ETA...	<i>Nahiz eta ordaindu, ez dut egingo.</i> <i>Nahiz eta ordaindu didaten, ez dut egingo.</i>
- BA ERE..	<i>Ordaindu badidate ere, ez dut egingo.</i>
-AGATIK ERE...	<i>Ordainduagatik ere, ez dut egingo.</i>

### 2.2.8. KONPARAZIOZKOAK

MENPERAGAILUAK	ADIBIDEAK
-N BAINO _____ -AGO	<i>Ni zu baino zaharragoa naiz.</i>

-N BEZAIN (Nolakotasuna; nolakoa?)	<i>Ni zu bezain baxua naiz.</i>
-N BESTE (ADINA, BEZAINBESTE, BEZAINBAT) (Zenbatasuna, kantitatea; zenbat?)	<i>Nik zuk adina auto ditut. (Zuk bost eta nik bost)</i>
ZENBAT ETA _____-AGO, ORDUAN ETA _____-AGO	<i>Zenbat eta lan gehiago egin, orduan eta nekatuago egongo gara.</i>

### 2.2.9. KONTSEKUTIBOAK

MENPERAGAILUAK	ADIBIDEAK
HAIN (HONEN=HORREN)____NON____BAIT-____ (Nola?)	<i>Hain; Horren; Honen nekatuta nengoen, NON ez BAIneukan ezertarako gogorik.</i>
HAINBESTE____NON____BAIT-/-N (Zenbat?)	<i>Hainbeste denbora pasa da, NON ez BAItut ia gogoratzen.</i>  <i>Hainbeste itxaron dut, NON azkenean loak hartu duEN.</i>

### 2.2.10. DENBORAZKOAK: NOIZ?

MOTAK	MENPERAGAILUAK	ADIBIDEAK
AURREKOTASUNA	BAINO LEHEN(AGO); AURRETIK ORDUKO	
GEROKOTASUNA	ETA GERO; ONDOREN (ondoan, ostean) -TAKOAN; -NEZ GERO; -Z GERO	<i>Ikasketak amaitu nituenez gero ez naiz hara itzuli; Hau amaituz gero (amaitu eta gero) joango naiz.</i>
BEREHALAKOTASUNA	BEZAIN LASTER; ETA BEREHALA -NEKO	<i>Esan zueneko igarri nion gezurretan ari zela.</i>
ALDIBEREKOTASUNA	-NEAN; -N BITARTEAN; -N ARTEAN -LA(RIK) -T(Z)EAN VS -T(Z)ERA KOAN -T(Z)EAZ BATERA; -AZ BATERA	<i>Atea zabaltzean ikusi dut. (Zabaldu duen unean). Atea zabaltzerakoan ikusi dut. (zabaltzera joan denean)</i>
MAIZTASUNA	-NETAN; -N BAKOITZEAN; -N GEHIENETAN; -N GUZTIETAN -N ALDI BAKANETAN	<i>Etorri denetan, ondo pasa du.</i>
NOIZ ARTE	-N ARTE	

2.2.11. MODUZKOAK – NOLA?; ZELAN?

<b>MENPERAGAILUAK</b>	<b>ADIBIDEAK</b>
-N BEZALA; -N BEZALAKOA	<i>Zuk esan bezala egin dugu; Zuk esan duzun bezala egin dugu. Jon zuk esan duzun bezalako da.</i>
-N GISA = -N ERAN = -N LEGEZ = -N MODUAN (Berdintasuna)	<i>Nahi duzun legez/gisan/eran/ moduan egin dezakezu.</i>
-N ANTZERA (Antzekotasuna)	<i>Guk utzi genuen antzera aurkitu genuen itzuli ginenean.</i>
-N HEINEAN; -N NEURRIAN	<i>Ahal izan dugun neurrian (heinean) lagundu diegu.</i>